

Esp. Zkia.- Z/G
E.E.- 2021-00081

128/2021 ALKATETZA DEKRETUA:

Larrabetzuko Udaletxean, 2021eko martiaren 18an.

OINARRIA: 2021eko martiaren 5ean, udal sarrera erregistroan 602 inskripzino zenbakiagaz udaleko sarreren erregistro nagusian euskal presoen senideei aholkularitza eta laguntza emateko elkarte da Etxerat Elkartea (IFK: G-20764205; helbidea: Hernaniko (20120) Nagusia kalea, 50 1. Solairua Erdian), zeinak diru-laguntzea eskatu eban azaldutako helburua lortzeko asmoz.

OINARRIA: Euskal presoen senideek dituzten arazo ekonomiko eta sozial handiak direla eta honelako jarduerak oso garrantzitsuak dira.

OINARRIA: Honako honeetan xedatutakoa: Diru-laguntzen 38/2003 Lege orokorraren 22.2.c) artikuluan, 887/2006 Errege Dekretuak onetsitako Diru-laguntzen Araudi Orokorraren 67. Artikuluan.

Honen bidez, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren arabera, HAU EBATZI DOT:

LEHENENGOA.- Etxerat elkarteari (IFK: G-20764205; helbidea: Hernaniko (20120) Nagusia kalea, 50 1. Solairua Erdian) 500,00 euroko diru-laguntzea emongo jako, 920-48101 aurrekontu-partidea zordunduta.

BIGARRENA.- Diru-laguntza hau 2022ko zezeilaren 28a baino lehen justifikauko da, 38/2003 Legearen 30. artikuluan ezarritakoaren arabera agiri honeek aurkeztuta:

- Egindako gastua egiaztetako fakturak.
- Egindako jardueren memoria.

HIRUGARRENA.- Dekretu honek oinarri arautzailearen izaerea eukiko dau, eta hemen ezarritakoaren arabera kudeatu, justifikau eta arautuko da: Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Araudi Orokorra.

LAUGARRENA.- Prozeduran parte hartu daben beste lizitatzailerak guztiei ebazpen honen jakinarazpena egingo jake.

BOSGARRENA.- Ebazpen honen barri emongo da Udalbatzeak egingo dauen hurrengo bilkuran.

Iñigo Gaztelu Bilbao
Alkatea

Nire aurrean,
Behin-behineko Idazkaria